

EUSKAL WIKILARIEN KULTURA ELKARTEA
HEZKUNTZA PROGRAMA

2017-2018
ikasturtearen
balorazioa



Sarrera

Dokumentu honetan ikasturte honetan Euskal Wikilarien Kultura Elkartek egindako Hezkuntza Programako lanak laburbildu nahi ditugu. Dokumentuak zehaztasun handia izan badezake ere (Wikipediaren softwareak baimentzen baitigu) datu orokorretan zentratu nahi izan dugu, ondo uler dadin egindako lanaren neurria zein den.

Atal bakoitzean balorazio txikiak ere sartu ditugu, egindako lana hobeto uler dadin, izandako zailtasunak edo praktika onak hobeto identifikatzen saiatzeko. Sistematisatuta izan gabe, argibide batzuk eman nahi ditugu modu honetan.

Jakina denez, proiektu honen helburua anizkoitza da: alde batetik erronka bat jarri diogu gure buruari, kalitatezko 1.000 artikulua lantzea 12-16 urteko ikasleentzat. Horretarako ere metodologia bat jarri dugu: Unibertsitateko irakasle eta ikasleekin lankidetzat, urtero egiten diren lan teoriko horiek probestu ahal izateko. EWKEren helburua Wikipedia indartzea zein wikilari berriak lortzea da, beraz, eta proiektu honetan jarri dugun erronka horretarako bideetako bat da.

Lan orokorrak

Webgunearen prestaketa

Egin beharreko lehen lana Wikipedian lan hau guztia argitaratzeko lekua prestatzea izan zen. Horretarako Atari:Hezkuntza izeneko gunea prestatu genuen. Gune dinamikoa da, oraindik ere aukera asko eskaintzen dituena.

Hezkuntza Atariaren azaletik hainbat garapen egin ditugu: 1.000 artikuluen zerrendarako sarbide erraza, lehiaketen jarraipenerako bannerra, irakasle-gela (laguntza berezia ematen diena irakasleei), ikasleentzat baliabideak eta egiten ari diren proiektuen jarraipen loturak.

Hezkuntza Ataria sortu zenetik 7.000 bisitatik gora izan ditu, eta etorkizunean garrantzia areagotzea da helburua, bere azpi-orrialdeak ere indartuz.

Arbelaren prestaketa

Ikasleek egiten duten lana jarraitzeko tresna da Arbela. Gure lehenengo lanen artean Arbela itzultzea eta erabiltzeko baldintzak sortzea izan ziren. Arazo asko izan genituen itzulpen lanekin: orain arte ingelesez bakarrik zegoen software bat itzultzeko prestatu behar izan zen, eta gauza asko ezin izan dira oraindik konpondu.

Hala ere, bide interesgarria izan da. Erabilera handia eman diogu eta garatzaileek ere gure ikuspuntuaren inguruko interesa izan dute. Arbelari zuku guztia ateratsetik urrun gaude, baina tresna gehiago ditugunean aukera paregabea izango dugu estatistikak eta jarraipena egiten jarraitzeko.

Itzulpen lanak

Jarri genuen beste helburu bat tutorial eta eskuorriak itzultzea zen. Nahi baino denbora gehiago behar izan genuen lan hau amaitu, inprentan sartu eta liburuxkak izateko. Horren ondorioz, ia ikastaro gehienak liburuxkarik gabe egin ditugu. Tutorialak ere denboran luzatzen ari dira, eta oraindik ez ditugu guztiak.

Ikasturtea amaitzerako guztiak eduki nahiko genituzke, hurrengo ikasturtean gure lana erraztu eta ikasleei material egokia emateko. Bestetik, erronka dugu egindako material guzti hau errazago jartzeko eskuragarri.

Laguntza orrialdeak berritzea

Laguntza orrialdeak gaurkotu gabe genituen eta zaila zen bertatik Wikipedian editatzen ikastea, asko eta asko lehen erabiltzen ziren sistemarako prestatuta baitzeuden. Egindako lanetako bat laguntza orrialdeak sinplifikatzea, berritzea eta, behar izanez gero, atal berri bereziak sortzea izan da. Oraindik badaude hainbat orrialde lehenengo sistemara egokituta daudenak, baina lan honen ondorioz Wikipediara gerturatu nahi duen orok aukera berriak ditu.

Unibertsitateak

Atal honetan unibertsitate bakoitzean, Campus bakoitzean edo Fakultate bakoitzean egindakoa azter genezake, baina dokumentu honetan datu orokorrak ematea hobetsi dugu. Hala ere, komenigarria da esatea, **lan gehienak (%94) UPV/EHUrekin batera egin direla**. Programa honen baitan 46 ikastaro eman ditugu ikasturte honetan unibertsitateetan, eta lerro hauek idazten ari garenean milioi bat hitz gainditu dituzte ikasleek. Hona hemen datu orokor batzuk:



Gutxienez 829 ikaslek hartu dute parte artikuluak editatzen. Ikasle askok talde-lana egin dute, beraz gehiago izango dira.

1.000.000 hitz baino gehiago gehitu dituzte Wikipediara

716
artikulu
hobetu
dituzte

317
artikulu
sortu
dituzte

256.000 ikustaldi izan dituzte artikuluak sei hilabetetan



330

330 irudi berri igo dituzte ikasleek artikuluak ilustratzeko.

Datu orokor hauetaz gain, aukera izan dugu edukietan sakontzeko. Argi dago irakasleek erabilitako metodologiaren arabera emaitzak ezberdinak direla, nahiz eta ez dugun datu estatistiko nahikorik metodologia zehatz baten alde egiteko. Ikasleen jarrera, ikasgelaren tamaina, irakasleak eskatutako lanak zuen balorazioa edo eskatutako gaiari nola erantzun dioten asko aldatu du amaierako artikuluen emaitza.

Orokorrean, bai ikusi dugu arazo nahiko izan dituztela ikasleek erreferentziak eta bibliografiak eratzeko eta, agian, azken kurtsoetako ikasleek izan dute emaitzarik onena eremu honetan. Irudien copyrighta, edo bideoen jatorriaren inguruan ere hutsune larriak daude, oro har. XXI. mendeko kompetentzia digitalak diren iturrien behaketa eta azterketa, ikuspuntu kritikoa edo egiletza eskubideen inguruan ezjakintasuna nagusi dela ikusi dugu, eta ez dagokigu bakarrik guri arazo hori aldatzea, noski.

Ikasleek landutako arloei erreparatuz gero, ikusten dugu aurrerapen handiak egin ditugula fisika, kimika eta matematikan, baita ingeniari eta teknologiei lotutako eremuetan, baina ez dugula lortu emaitza esanguratsurik historia eta, oro har, letra klasikoaren atalean. UPV/EHUko Filosofiako ikasleekin izandako esperientzia bikainean ere, zientziaren historia izan da landutako gaia. Ez dugu lortu programarik garatzea Psikologian, Historian, Magisteritza eta Ekonomiaren eremuan, nahiz eta azken honetan euskara eta komunikazioaren eremuan artikuluko multzo eder bat landu dugun.

Bereziki **UPV/EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa sailarekin** lanean izan dugu emaitzarik interesgarrienetako bat. Irakasle hauekin aukera polita dugu lana egonkortzeko, izan ere guztiz bat dator gure planteamendua eta eurek ikasgelan lantzen dutena. Irekitako programatako asko, ikasgai honetan izan dira. Jasotako artikuluek ere kalitate oso altua izan dute.

Aipamen berezia egin nahi diogu hemen izandako praktika esperientziei. Hiru abiatu ditugu, eremu ezberdinetan: alde batetik Master bat patrozinatu dugu UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean, ilustrazio zientifikoak Wikipedian indartzeko; bigarrenik, bi ikasle izan ditugu praktiketan Gradu Amaierako Lan bat egiten Mondragon Unibertsitatean, Wikipedian bideoak duen garrantziari eta formatu posiblei buruz; azkenik, bi ikasle ORES teknologia garatzeko saiakera egin dute UPV/EHUko Informatika Fakultatean. Esperientziak oso ezberdinak izan dira. Baita emaitzak ere.

Ilustrazio Zientifikoarekin arazoak izan ditugu helburuak ulertarazteko, eduki libreak igotzea nahi genuela adierazi eta praktikaldia txukuna izateko. Irailean aurkeztuko du ikasleak lana, baina oraindik ez dago definituta helburua. Aldi berean, ez dugu lortu irudi libre bat ere Wikipediarako, eta ez genuen izan eurei ikastaro bat emateko aukerarik. Hurrengo urtean konpondu beharreko auzia.

GrAlari dagokionez, ikasleek ikerketa sakona egin dute bideo formatuei dagokionez, baina aurkeztu dituzten bideoak ez zuten Wikipediarako balio, ez tonotan, ez eta eduki libreei dagokionez. Libre izatearen kontzeptua albo batera utzi dute eta, beraz, bideoak ezingo ditugu, dauden bezalaa, Wikipediara igo.


Azkenik, ORESen praktikak egin dituzte bi ikasleek aukera polita izan dute Wikipedia barrutik ezagutzeko, baina ez dugu lortu aurrerapen handirik euren bidetik. Ardura, ordea, WMFren bide luzeetan dago, eurek lan eskerga eta oso txukuna egin baitute.

UPV/EHUren Letren Fakultatean eskaini genituen praktiketara ez zuen inork izenik eman. Hurrengo urtean berriro eskainiko ote ditugun eztabaidagarria da.



Gaizki ateratakoetatik ikasi, eta bikain ateratakoak bultzatu. Badugu hurrengo ikasturtean aurrera egiteko materiala

Irakasleek emandako erantzunak


Nolakoa izan da eskatutako lana?



Zein da ikasleen maila?



Konpetentzia digitalak



%94,7

Irakasleen gehiengoak errepikatzeko prest dagoela esan digu

Bigarren Hezkuntza

Bigarren Hezkuntza gure erronkaren ardatza da. Azken finean, artikuluak 12-16 urteko ikasleentzat ari gara hobetzen. Hori dela eta, hainbat bide ireki ditugu irakasleen parte-hartzea handitzeko, eta ikasleek Wikipedia hobeto ezagutu eta erabiltzeko.

Ilido hau ez da joan nahi genuen abiaduran, eta traba handiak topatu ditugu Berritzeguneen bidez ikastetxeetara iritsi edo proiektua bera garatzeko. Ikasturtearen azken txanpan bideohau berrireki eta bi ikastaro eman dizkiegu Bigarren eta Lehen Hezkuntzako irakasleei.

Aldi berean, elkarlana bultzatu dugu Euskal Herriko Ikastolekin, unitate didaktiko bat sortzeko helburuarekin. Unitate hori ikasturte honetan amaitzea zen erronka, eta dagoeneko prest dago aurkezteko. Gure hurrengo erronka irakasleengana iristea izango da eta ikastolaz ikastola hitzaldiak eskaintzea, eskariaren arabera.

Lau ikastetxetan hitzaldiak eskaini ditugu, Wikipediako artikuluak egiteko helburuarekin. Emaitzak oso ezberdinak izan dira, ikastetxearen izaeraren arabera. 16 urteko ikasleekin lan egiteko moduak ezberdinak dira, klasearen iraupena ere laburra da, eta helburu neurgarriak jartzea zailagoa. Hurrengo ikasturterako erronka hainbat proiektu garatu eta neurtzea izango da, beraz.

Lehen Hezkuntza

Proiektu honen helburuetako bat Vikidia bultzatzea zen. Vikidia 8-13 urtekoentzako Entziklopedia bat zen, Frantzian sortua, eta Wikimedia Fundaziotik aparte. Irakasle Eskoletan hainbat azalpen eman eta gero, ikusi genuen ez zela batere ezaguna, eta zaila izango zela Unibertsitateko ikasleak bertan idaztera bultzatzea.

Aldi berean, albisteak jaso genituen Vikidiaren jarraikortasunari buruz: antza arazoak egon zitezkeen etorkizunean zerbitzariak mantentzen jarraitzeko.

Hirugarren faktore bat ere bazegoen Vikidian lan egitea zailtzen zuena: ezagutza teknikoa duten lankide falta, txantiloak, kategoriak edo Wikidatarekin loturak abiatzeko.

Hiru faktore horiek ikusita, proiektua bera berplanteatu eta euskaraz bakarrik dugun berrikuntza bat sartu genuen: **Txikipedia**. Txikipedian Vikidiako eduki guztia dago, baina hazkuntza nabarmena izan du sortu zenetik. 1.000 artikulutik gora ditu, eta oraindik ez da Entziklopedia funtzional bat, baina Wikipedia eta Txikipediaren arteko lotura askoz interesgarriagoa da.

Txikipediaren funtzionamendua Wikipediarena bezalakoa da, tresna berdinak eta baliabide berberak erabiltzeko aukera dago. Gainera, artikuluak zuzenean lotzen dira fitxa sistema batekin, Wikipedia guztietan aitzindaria. Sistema hau garatzeko Norvegiako wikilarien laguntza izan genuen, eta sortutako interesa oso handia izan da. Ikastaroak eman ditugu jada, prentsan oihartzuna izan du eta bisiten emaitzak ere oso onak dira:

Txikipedia

8-13 urteko umeentzat pentsatutako
lehen Wikipediaren barruko bertsioa

1.070

artikulu
umeentzat
moldatuta

1.

lehenak
gara hau
garatzen

**13.300 bisita artikuluei
sortu zenetik.**

**311 bisita izan ditu
azalak egunero**

Bestelako elkarlanak

Elhuyar Fundazioa

Elhuyar Fundazioarekin hainbat proiektu eraman ditugu aurrera. Alde batetik Wikidatara **Zientzia eta Teknologia Hiztegiko** (ZTH) deskribapenak eta definizioak igo ditugu. Momentuz 6.600 definizio izan dira, baina beste 20.000 inguru igotzeko aukera egongo da etorkizunean. Definizio hauei esker, mugikorretik egindako sareko bilaketetan euskarazko azalpen txukuna jasoko dugu lehen begiratu batean. Luzera begira, itzultzaile automatikoei terminologia egokia jasotzen lagunduko diegu, geroz eta gehiago erabiltzen dutelako Wikidata zein Wikipedia terminoak itzultzeko garaian.



Bigarren proiektua **Teknopolis saioko bideoak** igotzea izan da. EiTbren baimena lortzea, eta bideoetan zegoenaren lizentzia argitzea izan dira buru hausterik handienak. Bideoen lizentziek, eta bertan erabilitako musika eta irudi guztien egiletza zehaztea oso ariketa zaila da, eta aurrera begira ere ondo zehaztu beharko dira horrelako proiektuak. Bideoak txertatzen hasi garenetik, bideoak dituzten orrialdeek 41.819 ikustaldi izan dituzte.

Azken proiektua izan da anbiziosoena, eta oraindik amaitzeko aukerarik ez duena: **Wikispeech**. AhoLabTTS teknologia baliatuz Wikipediako artikulua automatikoki entzuteko aukera gehitzea zen erronka, baina sistemaren muga askorekin egin dugu topo. Bartzelonako Hackatoian ere landu dugu gaia, baina oraindik Suedian garatzen ari den beste teknologia baten menpe dago gurearen instalazioa. Espero dugu 2018an zehar instalatzea, baina gurea prest dago bide hori egiteko.

Susa argitaletxea

Susa argitaletxearekin literatura eremua beste modu batez lantzeko aukera aztertu dugu. Proiektu bikoitza lantzen ari gara eurekin, oraindik ere amaitu gabe dagoena. Alde batetik Haur eta Gazte Literatura zein Euskal Literaturan egon behar diren funtsezko artikulua eta gaiak aztertzeko eskatu diegu, eta dagoeneko lehenengoaren txostena badugu, adituek landuta. Curriculumean agertzen dena baino landuagoa da, eta bide orri bat ematen digu hurrengo urteetan Unibertsitateekin lantzeko, bereziki Haur eta Gazte Literatura lantzen den ikasgaietan, baina ez bakarrik.

Bestetik, **Armiarmako datu baseak eta Wikidata koordinatzeko lana** abiatu dugu. Horri esker, urte honetan zehar, euskarazko idazleen biografiak hobetu, literaturari buruzko informazioa gaurkotu eta ikerketa interesgarriak egiteko bideak irekiko dira.

Liburuzainak

Donostiako liburuzainekin egiten ari garen proiektua Hezkuntza Programarekin batzeko ahalegina egin dugu. Liburuzainak gure artikuluen zerrendan dagoen "**Literatura Unibertsala**" eremua lantzen ari dira aurten, eta zerrenda ere eurekin batera osatu dugu. Elkarlan adibide bikaina, gure ustetan.

Ahotsak



Altxorra du Ahotsak.eus ekimenak. Ia 50.000 bideo pasarte, 300 herri baino gehiagotan grabatuak, pertsona anonimo zein ezagunak, herri hizkeran historia eta etnografia egiten. Aurten egin dugun akordioetako bat eurekin landu dugu: **300 herri** horietako euskararen lagin bat hartu eta dagokion herriko artikulura igotzea. Gainera, herri horretako euskararen egoera eta berezitasunen inguruko pasarteak ere osatuko litzateke. Urte honetan zehar egingo da, eta dagoeneko hasi gara lehenengoak jasotzen.

Berria



Berriak dituen bi proiektuko testuak libre uzteaz gain (GAL 30 urte eta Oroiteria), historia osoan zehar egin dituzten infografiak Wikimedia Commonsera igotzeko lan titanikoari egin diogu. **16.000 infografia baino gehiago**, eremu guztietan, etiketatuta eta libre.

Infografia hauen erabilera hurrengo ikasturteko estatistiketan aztertu ahal izango dugu, oraindik igotzeko prozesuan baikaude.

UEU

UEUrekin bi bide ezberdin landu ditugu aurten. Alde batetik Udako Ikastaroetan hiru saiotan hartuko dugu parte. Bestetik, historiako liburuetakoa hainbat pasarte askatzeko elkarlana abiatu dugu.

Lehenengoari dagokionez, EWKE eta UEUren arteko elkarlan bidea sendotzea da helburua. Wikimedia proiektuetan trebatzeko ikastaroa, komunikabideen datuak aztertzeko ikastaroan eta **WikiSenior** deitu dugun esperientzia berri batean hartuko dugu parte.

Liburuen askapen prozesua zaila izan da. Liburuetakoa testuen egokitasuna aztertzeaz gain, Wikisourcera igo ziren azkenean hainbat testu ez oso. Testu hauek ez dira oso baliagarriak etorkizunera begira, baina **Wikiteka** proiektua sortzeko ezinbestekoak izan dira, eta zentzu horretan oso baliagarri.

Bertsomate



Ekimen txikia baina oso interesgarria izan da honakoa. Jone Uria bertsolariarekin **matematikari buruzko hainbat definizio bertsoan emateko erronka** abiatu genuen, eta bideo moduan igo ditugu sarera. Bideoek oso harrera ona izan dute, eta dagoeneko txertatuta daude dagozkien artikuluetan.

Helburuko artikuluen hobekuntza

Egindako lanaren erronka nagusia 12-16 urteko ikasleentzat kalitatezko artikulua eskaintzea da, eta horretarako aurten egindako lan nagusietako bat Heziberri Curriculum dekretuan agertzen diren terminoen erauzketa izan da. Lana ez zen erraza izan, termino asko hala moduz atera behar izan direlako, baina egindako zerrendak aukera handiak eman dizkigu lanean jartzeko. Artikuluen zerrendak izan ditu bere kritikak: alde batetik Unibertsitateetan lana egitea zailtzen zuen, gai asko ezin zirelako modu errazean landu bertako ikasgaietan; bestetik, gaien aukeraketan hutsune nabarmenak zeudela argi zegoen, Curriculumeko erauzketa sistematikoa izan bada ere, barruan zer sartu eta kanpoan zer utzi jakitea zaila delako, batzuetan.

Horregatik, programa honen berezko helburua dena, erronka gisa azaldu behar izan dugu. Helburu nagusia herri honetako ezagutza guztia herritar guztien esku jartzea da, horretarako tresna wikilari gehiago izatea, eta proposatu dugun erronketako bat oinarrizko artikulua lantzea da, kalitatea hobetuz.

Hasiera batean 1.000 artikuluko hobetzeko erronka jarri genuen, baina laster ikusi genuen zenbaki zehatz hori lortzea zaila izango zela, eta arloz arlo joan gara borobiltzen saiatzen. 1.710 artikuluko daude zerrendan, eremu guztietan. Gure erronka 1.710 artikuluko horiek hobetzea izan da, beraz.

Estatistikak egiterakoan arazo zehatz bati egin behar izan diogu aurre: literatura eremuan egindako aldaketek pixka bat desitxuratzen dituzte emaitza orokorrak, ikasturtearen erdian aldatu baikenituen artikulua, lehen aipatutako elkarlanen ondorioz. Hala ere, saiatu gara datu horiek ere era egokian aurkezten.

Datu orokorrak


Artikuluaren luzeran emandako aldaketa.

10.138.698 byte (5.919 artikuluko)

12.569.340 byte (7.338 artikuluko)


%24
hazi dira
artikuluak

Artikuluaren luzera orokorrean emandako aldaketak biltzen dira grafika honetan. Artikulu laburrak hedatu dira, eta luze gehiago ditugu orain



Artikuluaren sorrera eta hobekuntza

Ikasturte hasieran **337 artikulua zeuden sortzeke** eta **836 artikuluk 5.000 byte baino gutxiago** neurtzen zuten. Ikasturte amaieran **264 falta dira egiteko** eta **781 dira 5.000 bytetik beherakoak**:



1.989.263
ikustaldi


Artikuluak laske ekainetik 2018ko ekainera bitartean izan dituzten ikustaldiak, %5eko hazkuntza.

5.435
egunero


Euskara, Eguzki-sistema, Europar Batasuna edo Giza Eskubideen Aldarrikapena ikusieraren artean.

Arloz arlo

Artikuluen luzeran aldaketa arloz arlo.



Artikuluen sorrera eta hobekuntza



Lehiaketak


Aurten martxan jarritako beste ekimen bat hilabeteko lehiaketarena izan da. Sari polit batzuekin gutxi garatutako gai ei heldu diegu, eta wikilari berriak ere lortu ditugu bide honetatik. Hilabetero sortu den lehiarekin ehunka artikul u sortu eta hobetu ditugu, Afrikako historia, elikadura, emakumeen historia edo giza sexualitateari buruz. Hauek dira ekimena laburbiltzen duten estatistikak:

★ **817** artikul u berri

275.865 hitz berri gehitu dira Wikipediara.

4.047
erreferentzia
gehitu dira

1.405
irudi
gehitu dira





EUSKAL

WIKILARIEN

KULTURA ELKARTEA

wikimedia.eus